

OZTOPOAK BIDAIATZEKO

Orain dela urte asko, bazen neskaxa bat, Noa izena zuena, eta askotan, bere lagun Nurrekin egoten zena. Noa, altua zen, ile luzea zuen, begi berdeak zituen, eta betaurrekoak zituen. Nurrek aldiz, ile motza eta kizkurra zuen, ahoan aparatoa zuen, eta begi berdeak zituen. Noari bidaiatzea, ilunabarra ikustea, eta Nurrekin egotea asko gustatzen zitzaion. Noa, alai, eskuzabala, jakintsua eta errendiezina zen. Nur aldiz, lagunkoia, azkarra, jatorra, bihotz-onekoa, eta beldurtia. Noa eta Nur, bizilagunak ziren, eta Bilbon bizi ziren. Noa bere ama, eta aitarekin bizi zen, eta Nur bere ama, aita eta nebarekin.

Egun batean, Noa, bere aita eta anaiarekin afaltzera jeitsi zen, (sukaldera) eta Noak bere gurasoei esan zien:

- Ama, aita, nik bidaiatzea nahi dut.
- Bai zera, zuk bidaiatu! -barrez hasi ziren.
- Ba, bai! -erantzun zien Noak.

Gurasoendako txistea zena kontatu zuenean, bere logelara joan zen, eta pentsatu zuen Nur ere berarekin joan zitekeela bidaiatzera, baina noski, bere gurasoak ez zioten bidaiatzen uzten.

Hurrengo goizean, Noa eta Nur eskolara joan ziren eta orduantxe esan zion Noak Nurri:

- Animatzen zara gu biok bidaiatzera joaten?
- Gu biok bakarrik! -esan zuen Nurrek beldur aurpegiarekin.
- Baietz! Ikusiko duzu zer ongi pasatuko dugun! -erantzun zion Noak.
- Zure gurasoak uzten dizute? Niri, ez -esan zuen Nurrek.
- Ez, baina plan bat dut. Goizeko seiak aldean, etxetik ihes egingo dugu.
- Seguru zaude...? Ring, ring! -jo zuen eskolako txirrinak Nurrek zerbait esan eta segituan.
- Goazen eskolara. -esan zuten biek.

Eskolatik irtendakoan, Noak eta Nurrek pentsatutakoa hurrengo astean egitea pentsatu zuten.

Sei egun pasatu ostean, Noa eta Nur ohean zeuden, eta une hartan seiak punttu-puntu ziren. Noak bat-batean, bi begiak ireki zituen, eta esan zuen: Ai ene! Goizeko seiak dira! Jantzi, maleta prestatu eta banoa Nurri tinbrea jotera.

Noak Nurri tinbrea jotean, biak batera joan ziren, motxila bat bizkarrean zutela aireporturuntz. Denbora bat pasatu ondoren, aireportura heldu ziren. Baina noski, Nur konturatu zen, nola gurasoak ez zekiten bidaiatu behar zutela, ez zutela pasaporterik, orduan Nur urduri jarri zen, baina Noak segituan esan zuen:

- Ni ez naiz bidaiatu gabe geldituko! Ideia bat dut: mozorrotu gaitezke, eta bitartean, hegazkinean sartzeko, zuk distrahituko dituzu. Ados?
- Nik, distraitu! -esan zuen beldurtuta.
- Bai, benga, lortuko duzu eta. -esan zuen Noak, Nur konbentzitu nahian.
- Ados... -erantzun zion Nurrek.

Biak, aireportuan zegoen denda batera joan ziren mozorroaren bila. Mozorroa Ren dendan, leku guztietatik begiratzen hasi ziren, eta azkenean, mozorro perfektu

bat, aurkitu zuten. Eguzkitako betaurreko batzuk, eta ileorde bat ere bai. Dendatik irten, eta berehala, jantzi zituzten ileordeak eta eguzkitako betaurrekoak. Nur, erabat bildurtuta, pasaporte eskatzen zuen langilea distraitzen hasi zen. Noa bitartean, (ezkutuan) zaintzailearen ondotik pasatu zen, korrikan, eta Noa pasatu ostean, Nur bere atzetik joan zen. Zaintzailea, Noa eta Nurren atzetik joan zen, esanez:

- Eii, zuek geldi hor! -esan zuen arnasestuka.

Baina zaintzailea, ez zen garaiz iritsi Noa eta Nur atxilotzera, dagoeneko, hegazkin barruan zeudelako, eta Nurrek esan zuen, eserlekuan esertzen zeuden bitartean:

- Bai, lortu dugu, langileari ihes egitea.

Orduantxe bidaia hasi zen. Noa, hegazkineko leihotik begira zegoen, guztiz txunditurik. Noa poz-pozik zegoen, leku asko bisitatu zituzten: Estatu-Batuak, London, Paris... eta eskultura... eteta gauza ospetsu gehiago ikusi zituzten.

Azkenengo lekua, falta zitzaien bisitatzeko, Argentina. Bisitatu ondoren, Bilbora itzuli ziren gurasoak ikusteko irrikan. Nur eta Noa, hiru asteren ondoren etxera itzultzean, Noa eta Nurren gurasoak udaltzaingoekin hizketan ikusi zituzten eta Noak bere amari esan zion:

- Ama, zertan zabilta udaltzaingoekin hizketan? -esan zuen Noak.
- Noa!!! -esan zion Kristinak (Noaren amak) negar batean.
- Nun egon zarete! Larrituta geunden!
- Ama, barkatu...
- Ez egin horrelako ezer inoiz! Entzun?
- Bai, ama...

Noaren lorategira joan ziren, Noa eta Nurren itzulera ospatzera. Hala ere, Noak eta Nurrek zigorra jaso zuten horrelako zerbait egiteagatik.

Ainara